

Pil-pilean

Soraluzeko hilabetekaria • 2015eko uztaila • 305. alea



ARRANOKO BAZKIDEAK

Elko

“Axola digun epaia herritarrena da”



ESKOLAKO MATERIALA



%10eko deskontu-baleak
+
tablet baten zozketa

Uztailaren 31ra arte



Uda honetan...

Este verano...

Uztailak 25, zapatua,
Sareren mahaia Kalebarrenen

#StopDispertsioa



Presoak Euskal Herriratzearen
aldeko sare herritarra

SORALUZEGO
SARE

TXOKO KAFETEGIA

Elkartzen
gaituen
txokoa

Kalebarreneko kale
kantoian

Tel. 943 75 17 89

UDA HONETAN...

gozatu gurekin batera:

- eguneko menua
- karta arrunta
- etxean egindako pizzak

giro lasaian



Zerk lotzen ditu Argentina eta Grezia?

Argentina eta Grezia koloreek baino Azerbait gehiagok lotzen dituzte.

2001eko abenduaren 19a. Argentinarrak antxintxika dabilta batetik bestera, noraezean. Corralittoa ezarri dute. Jendearen kontu korranteak hutsik daude. Urteetan zehar pilatutako aurrezkiak, aste horretan bertan saldutako etxea, soldatak, erretiroa... Ezer barik gelditu dira honezkero. Hala ere, ordaindu behar dute alokairua, hipoteka eta, hori gutxi ez eta, jan ere egin behar dute.

Ondoren, egunak joan ziren bata bestea- ren atzetik eta egun horietan, argentinarrak (maila ertainekoak gehienak) bankuetako atek kolpatzera atera ziren, supermekatuak arpilatu zituzten eta hil ere egin ziren beste batzuk. Presidente bat ere bota zuten kargutik. Baita ekonomia ministro bat ere. Agur odoltsua izan zen haiena. Izan ere, corralittoa 20 hildako baino gehiago eragin zituen, gerora beren buruaz beste egin zuten guztiak kontuan hartu gabe. Gainera, urte amaiera hartan, 6 presidente izan ziren astebetean, eta horrek zera baieztatu zuen: inork ez zuela ezer ulertzen. Ezta agintariek eurak ere.

Langabezia % 21ekoa zen, inflazioa izugarria, gosea eta muturreko pobrezia ere egunetik egunera handiagoak ziren herrialde aberats batean. Menemen garaietan Europara eta Miamiara biadiazten zutenak (peso1=dolar1 berdintzeari esker) jabetu ziren iruzurrak: ez zegoen dirurik herrialdeko diru-kutxan, eta askok zabor-erakunde- tziatan jardun behar izan zuten jan bila. Zergatik zeuden Argentinarrak goseak? FMLak eta munduko bankuek emandako zuzentarauak bete zituzten, zehatz-mehatz jarraitu zituzten Rodrigo Ratoen eta De la Rúa presidentearen aholkuak, eta hala ere Argentinarrak goseak zeuden. La-



Ángel Mario Fernández

“Orduan, contra-corralittoa azaldu zen: Néstor Kirchner. Haren gidaritzapean muturreko zorra ordaintzeari utzi zitzaion tarte batez.”



P.G.

netik kaleratzea merketu zuten, BEZa igo zuten eta estatuaren enpresa guztiak saldu zituzten merke-merke, estatuarentzat gasturik sor ez zezaten. Amonaren bitxiak ere ez ziren geratu argentinarren esku. Privatizazio-haizea etorri zen gero, eta gaitz guztientzako sendagaia: argentinarrak pobrezia eraman zituen neurri atzerakoi horiek guztiak betetzea. Noraez giro hark iraun zuen bitartean, bankuek (Bostonek, City Bankek, Galiciak, BBVA-Francés-ek eta Santanderrek, besteak beste) haien dirua toki errentagarriagoetara eraman zuten.

Orduan, contra-corralittoa azaldu zen: Néstor Kirchner. Haren gidaritzapean muturreko zorra ordaintzeari utzi zitzaion tarte batez. Ez zen zorra baliogabetu, baina Argentina zulotik ateratzen zen arte zorra ordaintzeari uko egin zitzaion. Pentsatzen zena legez, nazioarteko eragileak presidentearen kontra jarri ziren, ez zeuden ados eta argentinarentzat isolamendua eta infernua iragarri zituzten. Bestalde, aurrez saldutako zenbait enpresa berreskuratu ziren, modernizazioaren kontratua bete ez zutenak; hala, Repsol, Ferrocarriles, Aerolíneas Argentinas eta beste zenbait estatuaren esku geratu ziren berriz ere.

Gaur egun, Argentinan lagabezia %5ekoa da eta hasierako bost urteetan eutsitako hazkunde ekonomikoa, urtero, %8koa izan da. Beraz, arriskua desagertu egin da, eta, egun, gutxienez soldata 800 eurokoa da, Latinoamerikako altuena.

Orain, Grezia gure bidea urratzen ari da. Agian, luzeegi egon da zain, baina inork ezin dezake esan ez duela arrakastarik izango. Beraz, topa egiten dut Greziaren alde eta heritarrek haien etorkizuna erabakitzeko izan duten ausardiaren alde. Segurutzat, infernua uste baino gozoagoa izango da.

Euskalzaletasunaren alde:



SORALUCE

Pil-pilean Kultura Elkartek ez du bere gain hartzen aldizkariko esanen eta iritzien erantzunkizunik.

Argitaratzailea: Pil-pilean Kultura Elkartea. Errabal kalea 15- 1., PK 27 – 20590 Soraluze, Gipuzkoa Telefonoa: 943 75 13 04 e-maila: aldizkaria@pilpilean.com
Erredakzioa: Leire Iturbe eta Egoitz Unamuno Zuzentzailea: Leire Ginea Publizitate: Egoitz Unamuno Diseinua: Iñigo Urribetxebarria Maketazioa: Oier Larreategi
Inprimategia: Gertu Koop. Banaketa: Pil-pilean Ekoizpena, 2.000 ale I.Z.K.a: G201696563 Lege-gordailua: SS-537-2.000

Aldizkari honek erakunde hauen dirulaguntza jasotzen du euskara bultzatzeko.



HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAIA



SORALUCEKO
UDALA



GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA

Gutunak

Sabin Mendizabal Plazaola Lau hitz soilik eskerrak emateko. Eskerrak urte guzti hauetan nire familia laguntzen eta babesten zaudeten guztioi. Baita, eta batizbat, pentsamolde ezberdina izan eta nire jardunarekin ados egon ez arren interesa erakutsi duzuenoi. Niretzako gauza haundia da hori.

Harro sentiarazen nau Soraluze bezelako herri batekoa izateak, ezberditasunen gainetik bere herritarrekiko ardura erakusteko gai dena. Hori da herri baten sena elkartzasunean oinarritutakoa izatea.

Mila esker bihotz bihotzez, eta bizi nintzen herriko zaharrak dioten moduan, BIBA ZUEK!

Laister arte.

Deialdia



San Andresko zozketa



Zenbaki sarituak
1346 Jatordua Txurrukan:
 Mariaje Laskurain.
1813 Saskia:
 Maria Jesus Arribas.

Bittartetik



Ainara Osoro

Uda ta alferkeriarako eskubidea

Bada ixa hilabete udan sartu garala eta ordundik egindako beruak emoten dabe zer pentsatu. Klima aldaketan ondorio izango al da? Hala bada, zientzilarixen gehienguak uste dabez, hein baten gure kontsumo gizartian ohituren ondoriua be bada. Gizarte ereduak dittuan eraginak ez dira gutxi ta gai horretaz pentsatzen jarritta, beste efektu bat etorri jata burura: lan sakralizaziñua. Izan be, jende askondako, udako sasoa norberari eta norbere plazerrei denboria emoteko garaia da. Urtia betebeharrak betetzen pasatu ohi dogu, batez be lanian. Udia baina, norberandako da, nahi dana egitteko edo ezer ez egitteko. Hau da, alferra izateko. Gai honetaz, Paul Lafargue liburua ospetsu bat idatzi zeban, Alferkeriarako eskubidea. Bere ustetan, kapitalismuak lanarekiko maitasuna inposatzen dosku, esplotaziño mekanismo bihurtu ahal izateko. Lanak duindu egitten omen gaittu. Alferra izatia, aldiz, pekatua da, tabu bat.

Horren aurrian, lanaldixa murriztu eta ondasunak eta lana banatzia proposatzen zeban, ostientzeko denboria gustuko jarduera fisiko edo intelektualei dedikatu ahal izateko. Funtsean, alferkeria eskubide bezala aldarrikatzia sisteman esplotaziño logika zentralan kontra juateko era erradikalenetakua dala uste dot. Baita, ohitura eta arau sozial batzuk berpentsatzeko era on bat, horretarako egokixa dan urtaro baten. Ongi etorri ba, plazerran eta alferkerian sasoiara.

Etxeko Sukaldetik...

Bokatak:

- Solomoa piparrekin
- Bularria tomatearekin
- Hemburgesa (tomatea gazte eta letrugarekin)
- Urdaiezpikoa

Razioak:

- Krokatak
- Txangiak
- Albondigak



DANTZATU JAIXAK!


ezpain hotsak musika daka.



Gaztelupe Taberna

“Zorionez parte hartzea bideratzeko espazioak sortuta daude”

Unai Larreategi
EH Bilduren bozeramailea



Unai Larreategi.

Udalbatzarrean eta sare sozialetan gogor kritikatu duzu EAJren eta PSE-EEren erabakia eta lehen egunotako jarduna. Norbaitek pentsa lezake ez diozula zilegitasunik aitortzen alkateari.

Zilegitasuna erabatekoa du. Lau gehi bi, bost baino gehiago dira. Inongo momentutan ez dugu hori zalantzan jarri. Hala ere, herriari esaten ari ginen denon artean funtzionatzeko asmoa geneukala. Gero, hauteskundeak etorri ziren eta berez lidergoa zegokionari tokia kenduta apurto zuten filosofia hori.

EAJk aurpegiratu dizue beste leku batzuetan berdina egin duzuela.

Bai, baina beste lekuetan aurretik jakinaz irazi zuten. Horixe izan da gehien amonarrarazi nauena, jendea zer egin behar zuten ezkutatu izana. Aurretik esan izan balute ez zegokeen arazorik. Alkatearen soldatarekin gauza bera gertatu da. Zergatik ez esan aurretik garbi zer egin behar duzun?

“Lanerako ardurak eskaini dizkigute gorberruan parte hartzeko aukerarik gabe”

Ez al da hori joko politikoa?

Batzuek politika ulertzeko daukaten modua da hori. Politika egiteko modu bat, ez bakarra. Guk beste era batera egin nahi

dugu politika. Aurreko legealdian logika berri bat landu genuen eta herritarrak hurreratu egin ziren. Ze ondorio ekarri du orain egin dutenak? Jende askok desgainatuta dagoela esan dit, alperrik dela, ez dagoela ezer aldatzerik. Guk ez dugu lagako sentimendu hori nagusitu dadin.

Alderdien adostasunaren gainean eraiki zen Alkarrekin. Oinarri hori gabe posible da aurrera egitea?

Guk Alkarrekin gidatu dugunean herritarrek proposatu eta erabaki dutenari baietza eman diogu beti, uste dugulako modu horretan, poliki poliki, herritarrak ere kudeaketan trebatzen direla. Galdera da, alkateak lidergo mota horri eutsiko dio? Prest daude herritarrekin boterea konpartitzeko? Hori da ni jardun politikoan jarraitzen motibatzen nauen arrazoia. Bestalde, guk eskaini genien alderdi guztien arteko gobernua osatzea eta begira erantzuna zein izan den. Baietz esan izan balute, sekulako esperientzia izango zatekeen.

Zuek ere ezetz esan diozue udal gobernuan parte hartzeari.

Ez, EAJk eta PSE-EEK ez digute udal gobernuan parte hartzeko aukerarik eskaini. Lanerako ardurak batzuk hartzea eskaini zikiguten, baina erabakigune nagusian parte hartzeko aukerarik eman gabe. Eurak agindu eta guk bete. Erabakia goitik etorri zela errepikatu dute behin eta be-

rriz, esanaz bezala euren eskuetan izan balitz bestela jokatu zutelako. Horregatik erabaki genuen elkarriketetan parte hartzea baina bigarren bilerarako argi gelditu zitzaigun ez zutela gure parte hartzea oinarritzeko baldintza batzuetan bideratzeko borondaterik.

“EH Bilduko bost zinegotziok herritarren mesederako lanean jarraituko dugu”

Zein ziren zuen oinarritzeko baldintzak?

Arduren eta lanen banaketa denon artean adostuta egitea. Alkatez arrotarioarena formula bat besterik ez zen, guk egokitzen genuena baina ez ezertarako oztopoa.

Datozen lau urteotan ze jarrera hartuko duzue?

Lehenengo indarra zara, bat-batean alkatez kentzen dizute eta zela jarraitu lanean? Ez da erraza. Gure programan jarri genuen Soraluze biziberritu nahi genuela herritarren arteko elkarlana bideratuz eta gure bost zinegotziek horixe elikatuko dute. Gure helburua ez da izango EAJ kritikatzeko. Aurreko lau urteetako esperientzia bat izan bada, datozen laurak ere hala izango dira. Zorionez politika modu zabal eta parte hartzailean egiteko espazioak sortuta daude. Lorpen politiko hori guztiona da.



Meskita zabaldu dute herrian



Herriko musulmanak, ramadaneko otordua egiten.

Herriko komunitate musulmanak meskita zabaldu du Mendiola industrialdean. Ramadana hastearekin batera zabaldu zuten meskita, duela hilabete, eta ordutik egunero 100 lagun inguruk bisitatu dute, 30 emakumezko eta 70 gizonzko. Hainbat naziotasunetako per-

tsionak batzen dira bertan, gehienak marokoar jatorrikoak, baina baita sahararrak, pakistandarrak eta bangladeshtarrak ere.

Bost errezo egunean

Emakumeak eta gizonak banatuta errezatzen dute, bakoitzak solairu batean, oinutsik eta "txilaba" jantzita. Uda partean, lehen errezoa goizeko 4:30ean egiten dute eta azkena eguzkia ezkutatzearekin batera, 22:00ak aldera. Ramadan sasoiari, ordu horretan jaten dituzte eguneko lehen eta azken jakiak ere, lagunartean. Gehienetan sopak, esnea, fruta, ura, arroza eta datilak partekatzen dituztela azaldu digute: "ramadanean eskuzabal jokatu behar dugula agintzen digu islamak". Gaur, ilargiaren argitan egingo dute baraualdia agurtzeko jai meskitan bertan eta ez da jan-edanik eta musikarik faltako.

FotoNotizia



196 ume udalekuetan, euren kantuarekin

Uztailaren 23an bitartean, 4 eta 12 urte bitarteko 196 ume parte hartuko dute Kukumixok antolatutako udaleku irekietan. Astelehenean, udalekuetako lehenengo egunean, Marrazen eta Arbasoen bisita jaso zuten Plaza berrian, eta gainera, Kukumixoren abesti grabatuberrira ere ezagutarazi zuten. Arianne Unamuno eta Domentx Uzinek konposatu eta Galtzagorri txarangak, umeen abesbatzak eta Kukumixoko kideek interpretatu duten kantuak girotuko ditu aurtengo udalekuak. Datozen egunetan "Ume gaiztoen festa" eta "Kale kolore" eguna ospatuko dute kalean.

Udako ordutegiak

Kiroldegiko arduradunek jakinarazi dute abuztuaren 10etik 20ra bitartean kiroldegia itxita egongo dela eta ikastaroak irailaren 14an hasiko direla. Liburutegia itxita izango da abuztu osoan zehar, eta iraileko lehenengo astean goizez egongo da zabalik, 10:00etatik 13:00etara bitartean. Udaltzaingoa ohiko ordutegia mantenduko du abuztuari: astegunetan 7:00etatik 21:00etara eta zapatuetan 7:30etik 19:30era.

Bi aparkaleku berri ezinduendako

Mugikortasun arazoak dituztenen dako erreserbatutako bi aparkaleku berri ezarri ditu udalak. Lehena Baltegieta kalean, 17 eta 19. zenbakien artean eta bestea, Errekalden, 26. zenbakien aurrean. Egunotan, herriko iturriak, baserri auzoetako parkeak eta zenbait kale ere garbitu ditu brigadak.



Ordezko udaltzaina irailera bitartean

Ibai Otazuak (Bilbo, 1987) dihardu udako oporren baja kubritzen udaltzaingoa. Irailera bitartean, berak beteko ditu herriko udaltzainen opor egunak, eta, momentuz, gustura dihardu udaltzain lanetan: "Soraluze herri lasaia eta atsegina dela dirudi, eta gogoz nator hona lan egitera".



Gazte-asanblada berritzeko prozesua

"Gaztetxearen etorkizuna zehazteko eta asanblada berritzeko" prozesua abiatu berri dute Gaztetxean. Bost urrats nagusi zehaztu dituzte: udaran eta urrira arte, herritarrei gaztetxearen gaur eguneko egoeraren argazkia zein den erakusteko materiala prestatuko dute. Ondoren, urritik gabonetako "Hamabostaldi"-ra bitartean, gazte-lokal, koadrila, talde eta norbanakoekin batuko dira, euren ekarpenak jaso eta aurrera begira zein asmo dituzten azaltzeko. Eta prozesua ixteko, deialdi orokor bat egingo dute, gaztetxearen parte izan nahi duten herritar guztiak batu, eta "etorkizunaz hitz egiten hasteko".



Irene Perez eta Maialen Oregik botako dute txupina

Jai batzordeak Irene Perez eta Maialen Oregi gimnastak gonbidatu ditu jaietan txupina botatzera: "batez ere Euskadiko txapelketan lortu dituzten emaitzengatik, baina baita emakumeak direlako eta praktikatzen duten kirola minoritarioa delako". Bi herritarrek "pozik eta oso emozionatuta" onartu dute gonbitea.



EAJ eta PSE-EEren udal gobernua



Gobernua osatu duten zinegotziak.

Uztailaren 10ean egin zen udal organuak eratzeko ohiko batzarra. EAJ eta PSE-EEko zinegotziek zuzenduko dituzte eratu diren hamairu batzorde informatzaileak. EH Bilduk mankomunitateko ordezkari izango du. Alkatearen lanaldi osoko dedikazioa eta soldata ere onartu zituzten.

EAJ eta PSE-EEk udalbatzarrean adierazi zuten datozen lau urteetan udalaren jarduna gidatuko duen udal gobernu taldea elkarrekin osatzeko erabakia. EH Bilduk batzarra baino egun bat lehenago jakinarazi zuen oposizioan jarduteko erabakia. Udalbatzarrean egindako bozketetan islatu zen indar korrelazio berria: EAJ eta PSE-EEk aurkeztutako proposamen guztiak onartu baitzituzten. EH Bildu abstentitu egin zen punturik gehienetan eta bere kexua azaldu zuen aurrez "inolako informaziorik" jaso ez zutelako.

Udalbatzarrak eta batzordeak

Udalbatzarrak bi hilean behin, eguaztenetan, arratsaldeko 19:00etan egitea onartu zen. Batzorde informatzaileei dagokienez, hamairu batzorde eta batzordeburu eratu ziren. Iker Aldazabal alkateak gidatuko ditu Kontuak eta Ogasuna, Garapen ekonomikoa, Industria eta Enplegua (batzorde berria), Pertsonala eta Hirigintza batzordea; Iñaki Rubiok (PSE-EE) Herri-lanak eta mantenimendua (batzorde berria); Nagore Zabalak (EAJ) Hezkuntza, Hizkuntza-politika (le-

hen Euskara) eta Kultura; Ramon Gallastegik (EAJ) Kirola eta Kiroldegia; Jabier Garmendiak (EAJ) Ingurugiroa eta Landa Garapena eta Patricia Borinagak Osasuna, Gizarte Ongizatea eta Inmigrazioa, Parekidetasuna eta Haur eta gazteria.

Alkatearen liberazioa eta soldata

Alkatea jardun osoz liberatzea eta honi urtean 57.023 euroko soldata gordina izendatzea onartu zen batzarrean EAJ eta PSE-EEren aldeko bozkek. EH Bilduk aurka bozkatu zuen, euren ustez "familien batazbesteko errenta 33.000 eurokoa den herri batean halako soldata ezartzea erabat desproporzionatua" delako. Iker Aldazabal alkateak adierazi zuen EAJk beti defenditu izan duela alkatearen jardun osoko dedikazioa eta soldata Gizpuzkoako Ahalduen Nagusiak onartu berri duen dekretuan ezarritako irizpideei jarraituz hartu dutela. Dekretu horren arabera, 2.000-4.000 biztanle bitarteko herrietan 57.023 eurokoa da alkateari ezarri beharreko gehieneko soldata, eta horixe da ezarri dena.

Idazkari aldaketa

Itziar Sagastagoia atxondoarrakordezkatuko du azken lau urteotan idazkari lanetan jardun duen Daniel Salazar eibartarra, azken horrek Aldundian lan egiteko postua laga du-eta. Sagastagoiak orain bi legegintzaldi ere jardun zuen udaleko idazkari lanetan, Jose Luis Arizaga alkate izan zen garaian.

JUAN MARI
XERRINDEGIA
943 75 24 40
MERKATU PLAZA
ESKERRIK EZMO PLAZA/BIETARRA
GOGAN ULANDAKO KONFANTZAGETIKO

Etxabe Harategia
Euskal txabalkia
Bildotsa
Merkatu Plaza 6 - 7 Postuak
T. 943 75 23 75

ARRANO ELKARTEA KONFISKATUTA

Estatuaren hatzaparretan

Epaiaren arabera edozein momentutan itxi dezakete Arrano elkarte.

Hamairu urteren ostean etorri da herrikoen epaiketa moduan ezagutzen den auziaren epaia. Auzitegi gorenak ekainaren 18an berretsi zuen 107 herriko taberna eta elkarte itxi eta konfiskatzeko agindua ematen zuen sententzia. Elkarte horien artean dago Soraluzeko Arrano elkarte ere. Epaiaren ondorioz, itxi ostean Estatuak subastara atera ahalko luke.

Jose Francisco Aizpuru lehendakariaren esanetan "epaiketa osoan ez dute aurkitu froga bakar bat egindako akusazioak egia direla frogatzeko, eta azkenean sententzian agertzen den arrazoi bakarra da elkartearen bazkideok HBkoak omen gara eta HB ilegalizatuta dagoela".

Ekimen askoren topagune sorreratik

Urteotan mugimendu politiko eta kultural askoren topagune izan da elkarte Larraitz Lakuesta bazkideak azaldu digunez: "hamaika kirol eta kultur ekimen egin dira; Euskal-jai batzordearen bilerak, pala eta pelota txapelketa, RK Zulo mugimenduaren eta musikariaren jatorduak, gazteenak, Laskurainen zaletu taldearenak, Aratosteetako txokolatea... eta beste hainbat".

Arrano elkarte 1985ean sortu zuten. Mauri Muroren esanetan -sorzailleetako bat-, "sorrerako bazkideen helburua herritarrek eta herri mugimenduak baliatu



Bailarako bertsolariak Arrano Libre plataformak antolatutako babes ekimenean.


ahalko zuen espazio bat eratzea izan zen. Garai hartan euskadiko ezkerako jendea ere baten". Elkarteak 87 bazkide ditu gaur egun eta bi langile, tabernaren ardura daramatenak.

Elkartasun ekimenak

Arrano Libre plataformak hainbat ekimen antolatu ditu Arrano elkarteak zabalik behar duela aldarrikatzeko: musika kontzertua, ipuin kontalaria, bertso-saioa... Arranora hurreratzeko dei egin diete herritarrei.

Gerra osteko aurrekaria

Aizpuruk azaldu digunez, Arrano elkartearena ez da Espainiako estatuak herri burutu duen konfiskazio bakarra. Aurrekaririk hurbilekoena Batzokiarena da, 1936ko gerraren ostekoa. Aginte frankistaren aginduz Batzokia konfiskatu zuten eta 1951n subastatu. Gorostidi kontratistak erosi zuen eta ondoren, Soraluzeko Ametsa Ikastolak erosi zion handik urte batzuetara. Azkenik, berriz ere EAJren esku geratu zen.



Amaia Amor
Tabernako langilea

Ez dago eskubiderik horrenbeste urte eta gero halako epai bat emateko. 107 Lokal bereganatu eta 300 langile kale gorrian lagako dituzte. Zalantzan gaude jaietarako generoa eskatu ala ez.



Igor Garmendia
Allegro elkarteak jontakidea

Ez zait ondo iruditzen elkarte bat horrela ixtea. Are gutxiago momentu honetan bake prozesua martxan izanda. Horrek ez dauka inolako zentzurik, konfrontazioa piztea ez bada.



Oihana Uribe
Mendatako tabernaria

Golpe gogorra izan da denondako. Arranoa herritarrek ordaindu dute eta herritarrena da. Gainera, nere lagunek lana galduko dute. Denon indarrak batu behar ditugu Arranoaren alde.



Argazkilaria: Aitziber Mayo.

“Hau lapurreta bat da, argi eta garbi”

Jose Francisco Aizpuru “Atxito” (Presidentea), Mauri Muro eta Larraitz Lakuesta Arrano elkarteko bazkideekin bildu gara elkartearen egoeraren inguruan berba egiteko.

Epaiaren inguruan zer iritzi duzue?

Guzti horren atzean Garzonen epai ezaguna dago, Ezker abertzalea desegitea helburu zuena. ETA finantziatu dugula leporatu digute eta eskatu dizkiguten kontu-liburu guztiak eman dizkiegu, denak aztertu dituzte eta ez dute aurkitu xentimo bakar bat inongo erakunde armatura bideratu dena. Zela bideratuko genuen dirua? Urtetan egoitza bera ordaintzeko sekulako lanak izan ditugu-eta. Kredituak eskatu behar izan genituen bata bestearen atzetik. Gainera, langabeziaren garaiak ziren eta bazkide batzuk diru gehiago ipini behar izan zuten beste batzuek baino.

Jendeak ondo daki halako taberna batek juxtu juxtuan ematen duela langileei ordaintzeko. Eurek ere badakite hori, baina berdin zaie. Egunkariarekin, Eginekin, gazteekin eta beste hainbatekin berdina egin zuten... Inongo frogarik gabe jendea gartzelaratu eta lokalak konfiskatu.

Armak gorde izana ere egotzi digute, sartu dira elkarteetan eta ez dute arma bakar bat topatu. Aurkitu izan balute giltzapean geundeke bazkide denok, lehendakariarengandik hasita. Akusazio horiek aipatu ere ez dira egiten sententzian.

Herri batasunaren egoitza dela esaten dute eta alderdia ilegalizatuta dagoenez egoitzak konfiskatu egin behar direla.

Ez da egia elkarte hau HBrena izan denik. Elkartearen jabeak beti izan gara bazkideak eta bazkideak bakarrik. Ez dugu ukatzen elkarteko bazkideon gehiengo hurbil dagoenik ezker abertzalearen mugimendutik baina elkarte bazkideena izan da eta da.

“Zela bideratuko genuen dirua? urtetan egoitza bera ordaintzeko sekulako lanak izan ditugu-eta”

Bide legal guztiak agortu dira?

Sententziaren hutsune bat baliatuta abokatuak errekurtsoa jarri dute Auzitegi Gorenean eta baliteke atzerapenen bat izatea, baina ez gehiago. Datozen egunetan Konstituzionalean sententzia errekurtituko da eta geldiarazteko eskaera ere egingo dute abokatuak, baina hortik ezin liteke gauza handirik espero. Hortik edo Estrasburgotik bestelako sententzia bat baletor ere, hamar edo hamabost urtera letorke. Noiz betearaziko duten, ez dakigu. Abuztuan gerta liteke edo gaur bertan.

Epaietak zer eragin izan du elkartearen?

Hamairu urtean zehar abokatuak ordaindu behar izan ditugu, elkartearen jabetza guztiak enbargatuta izan ditugu eta ezin

izan dugu ganorazko berrikuntza eta inbertsiorik egin. Eta horretaz gain elkartearen kargua genuenok Madrilera joan beharra izan dugu. Pentsa zer den hori. Garai batean 130 bazkide izan genituen eta gaur egun 87 ditugu. Alde horretatik eskertzeko da bazkideek erakutsi duten tinkotasuna.

Elkarte honen bazkideondako ez dago justiziarik. Hau lapurreta bat da, argi eta garbi, Francok bere garaian egiten zituzten modukoa.

Zein egoeratan daude langileak?

Langileak automoak dira baina elkartearen ixten bada kalera joango dira.

“Hamairu urtean zehar elkartearen kontu guztiak enbargatuta izan ditugu”

Balitzo itxiera baten osterako pentsatu duzue ezer?

Momentu honetan lehenetsuna da Arrano elkartearen zabalik mantentzeko ahalegina egitea. Beste zozter gertatzen bada, orduan pentsatu beharko dugu zer egin. Oraindik ez dute itxi eta txikia baldin bada ere, sententzia bete gabe gelditzearen itzaropena zabalik dago. Momentu honetan herritarren babesa da gure itzaropen bakarra.

Herritarrei zein mezu bidali nahiko zeniekete?

Guri axola digun epaia herritarrena da. Hori da gure benetako epaia eta ez Espainiako epaileena. Haiengandik zer etorriko den badakigu. Gure epaileak plaentxiatarrak dira. Badakite zein garen, zelakoak garen eta zer egiten dugun. Geizki egindakoak esango dizkigute eta ondo egindakoak ere bai. Herritarrek jakin behar dute egozten zaiguna ez dela egia eta epaiketaren ez dela akusazio bakar bat ere frogatu. Totum rebolutum bat egin dutela, dena ETA dela sinestarazteko. Estatua zalantzan jartzen duten edo independentzia gogoia sustatzen duten ekimenak erasotzen dituzte.

Hau ez da elkarte gastronomiko arrunt bat. Hemen denetik egiteko elkarte izan gara ehundaka herritar: politika egiteko, jaiak antolatzeko, herriko kontuek eztabaidatzeko, patatak zuritzeko, jateko, kantuan egiteko... hori dena galduko du herriak Arranoa ixten bada. Herritarrei eskatu nahi genieke momentu honetan euren babesa eta laguntza emateko. Kende ditzkigute tresnak eta etxea baina aurrera egitea lortuko dugu herritarren laguntzarekin.

Udako oporrak datoz eta herritar askok herritik kanpora joateko baliatuko dituzte opor egunok. Nora joango liratekeen eta nora joango diren galdetu diegu.

Nora joango zinateke bidaiari?



Beñat Catalan

Estatu Batuetara joango nintzateke. Beti ezagutu nahi izan dut. Ruta 66 egingo nuke gustura eta Las Vegasera joan. Aurtengo udan lan egin behar dut eta seguruena hemen pasatuko dut uda.



Pauli Asensio

Ez naiz sekula atzerriko herrialdeetara joan eta gustatuko litzaidake Italia eta Frantzia ezagutzea. Aurtengo udan Extremadurako Huelaga herrira joango gara. Familiarekin egon, jairik jai ibili, zezenak ikusi... Krisia hasi zenetik jende gehiago batzen gara.



Pili Calleja

Inora ere ez. Ni hementxe nago ondoen. Udan jende gehienak alde egingo du eta sekulako lasaitasuna izaten da herrian. Goizean erosketak egin, trago bat hartu, tarteka kanpoan jan... Neretako ez dago plan hoberik.



Zigor Quintana

Australiara joango nintzateke leku basatiak ezagutzera. Normalean Islara joan izan naiz baina aurten Salamanca joango gara, bikotekidearen etxera. Batez ere jatera eta edatera. Han garagardoa dezentez merkeago dago hemen baino.

Lehiaketa

Galdera

Zenbat urte bete ditu Marrazek?

- 10
- 9
- 8

Oharra: lehiaketako irabazlea aukeratzeko zozketa alea atera eta hurrengo barixaku eguerdian egingo dugu.

Deitu **943 75 13 04** edo e-posta bidali **aldizkaria@pilpilean.com** datorren **barixaku eguerdia** baino lehen.

Saria:

“Los hijos del corralito” liburua



Aurreko aleko erantzuna

Gerra aurretik, Pedro Maria Iriondo izan zen EAJren lehen alkatea, 1931. Ostean, Jesus Maria Akizu jeltzaleak hartu zuen agintea.

Irabazlea

Enkarna Arrizabalaga



TXURRUKA
JATETXEA

www.txurruka.com
943 75 15 81

TXURITXU
GOZOTEGIA


Tel. 943 75 24 43

Pastel eta gosari goxuenak dastatzeko lekurik onena
Etxera banaketak egingo dira

— Motzean —

18 soraluzetar lasterketan

Asier Frias elorriotarra eta Igone Eriz aramaioarra izan ziren Iñaki Ruizen omenezko mendi-lasterketan helmugara iritsi ziren korrikalaririk azkarrenak, 1:41:30 eta 2:43:06ko denbora. Guztira 84 korrikalarik amaitu zuten lasterketa, tartean 18 soraluzetarrek. Herritarrik azkarrena Ander de Luis izan zen, lasterketako 21 kilometroak 1:52:43 segundotan eginda.



Futbito eta pelota txapelketako finalak, bihar

Bihar, zapatua, jokatuko dira Futbol 7ko eta Asier eta Iñakiren omenezko XIV. pelota txapelketako finalak. Fronton Team eta Kastakuak arratsaldeko 18:30ean lehiatuko dira Ezozin. Pelota finala, berriz, kiroldegian jokatuko dute gaueko 22:00etan, Jokin Oregi eta Asier Fernandezek, Jon Gallastegi eta Ander Oñateren aurka. San Andresen jokatuko zuten finalaurrekoan Josu Unanue eta Markel Albisuak 14 -22 galdu zuten Jokin Oregi eta Asier Fernandezek aurka. Jon Herizek eta Beñat Catalanek, berriz, 15-22 galdu zuten Jon Gallastegi eta Ander Oñateren aurka.



Elorza vs Ariznabarreta igerian

Gure esku dagok irailerako prestatu du hurrengo desafioa. Herriko kirolariak, bi taldetan banatuta, erreleboka lehiatuko dira: aizkoran, korrika, bizikletan eta igerian. Azken hori ibaian jokatuko dute Luis Ariznabarretak eta Josu Elorzak. Santa Ana zubitik hasi eta kiroldegi pareraino, Deba ibaian zehar egingo dute igeri, 300 metroak zeinek azkarrago egin. Neoprenozko trajea jantzita sartuko dira uretan eta ondo pasatzea dute helburu nagusi. Horrekin batera, euren buruari jarritako kirol-erronka eta ibaiari duen balioa ematen hasteko ekarpena ere izango da.



Iosu Elorza eta Luis Ariznabarreta.

Juaristik ez du Bilbao Athletic-en jarraituko

Mikel Juaristi futbolariak aurreratu du datorren denboraldian ez duela Bilbao Athletic-en jarraituko, taldeak kontratua ez berritzea erabaki duelako. Bilbao Athletic-ek iaz fitxatu zuen Mikel (Soraluze, 1992) eta Jose Angel Zigandaren gidaritzapean jokatuko du denboraldia 2. B mailan. Bilbao Athletic 2. mailara igo da aurten.

Mikel Calvo Leioak fitxatu du

Aurreko denboraldian Eibar futbol taldearen prestatzaile fisikoa izan eta gero, kontratua eten eta Leioak fitxatu du 2.B mailan jarduteko. Calvok adierazi duenez, Eibarrek futbol baseko taldeen prestatzailea izatea eskaini dio, baina berak Leioako taldearen eskaintza hobetsi du "profesionalki eta



Juaristi behean, mailaz igotzea lortu zuten partidaren ostean.

baita pertsonalki ere aberasgarriagoa delako". Beraz, Leioako jokalarien arlo fisikoa eta teknikoa hobetzeko erronka izango du datorren denboraldian.

Kontulan 
aholkularitza

Errenta aitortpenak • Zerbitzu juridikoak • Administrazioa lanak • Trafikoko burokrasiak
 Lan-arloko aholkularitza • Enpresen konturazio/diskusioak • Kontabilitatea • etab...

Santa Ana 13 - 1. csk. 20590 Soraluze - Tel. 943 75 17 82 / Fax 943 75 01 82

MENDIZABAL
 okindegia

Egurrezko labean egindako ogia

Kalobarren, 10
 Tel. 943 75 20 91

Beltzgieta, 6
 Tel. 943 75 13 99



Euskal kantagintzari eskainitako emanaldia



Kubako doinuak landu zituzten iaz.

Kantariak, musikariak, txistulariak eta dantzariak, denera 50 herritar batuko ditu uztailaren 24ko gauerako antolatzen diharduten euskal kantagintzari lotutako emanaldiak. Ez Dok Amairuren sasoiko doinuetatik hasi eta gaur egunerainoko ibilbidea jorratuko dute, kantu herrikoiki eta ezagunak interpretatuz. Arduradunek azaldu digutenez, aurten emanaldirik ez antolatzekotan ere izan dira baina "antolaketa eta egitura aldatuta" aurrera egitea erabaki dute azkenean. Aurtengo emanaldia antolatzeko herriko talde eta eragile gehiagorengana jo dute. Datuzen urteetan "jende gehiagorengana hurbildu nahi lukete eta horretarako "gai bat proposatu eta ahalik eta herritar gehien festara animatu" nahi lituzkete.

Denetariko musika gaztetxean



"The Oso basatis" taldeak Arranoan eskaini zuen emanaldia.

Hip-hop, rock eta musika kubatarra programatu dute gaztetxean jaietarako. Galtzagorriekin "Gazte eguna" antolatzearekin batera, gaueko kontzertuak izango dira egitarauan. 24an "Raperos de Emaus" hip-hop talde bairaindarrak eskainiko du emanaldia gaueko 23:00etan hasita. 25ean, "La misa del gallo" punk taldea eta "Elvis caino DJ"-a izango dira. 26an, "Azkaite pelox trio" taldearekin batera "The Oso basatis" herriko talde rockeroak jardungo du, eta azkeneko egunean, 27an, iluntzean, Kubako doinuak ekarriko ditu "La jodedera" taldeak.

Egitarau betea Mesedeetako Amaren egoitzan

Nagusien egoitzan inon baino lehenago ekingo diote Santa Ana jaiak ospatzeari. Uztailaren 22an, fotocall-a prestatu dute eta 24an hasi eta 27ra bitartean izango dute bai zer eginik. Trikiti doinuak, pregoia egoitzako balkoitik, kalejirak, danborradak, dultzaineroak, kontzertuak antolatu dituzte, besteak beste. 25ean, gainera, "Merced Soraluze" aldizkaria aurkeztuko dute.



Elkarrizketa



Oier Larreategi, Nerea Nieves eta Oier Ariznabarreta, Galtzagorriak jai batzordeko kideak

"Jai batzordean, indar aldetik, ez gabiltza gure momenturik onenean"

Egun gutxi geratzen dira Santa Ana jaietako suziria jaurtitzeko eta egitarauari azken ukituak ematen harrapatu ditugu Galtzagorriak.

Egitaraua aurreraterik badaukazue?

Uztailaren 24an, "Gazte eguna" antolatu dugu gaztetxearekin batera. Eguerdiko txupinaren ostetik, herri-bazkaria, "Bi pringau" taldearen emanaldia eta triki-bertso-poteoa egongo dira. Gauean, "The Sunken Ship Band" eta "Joxe Replay"-rekin gozatuko dugu. 25erako erromeria antolatu dugu, 26rako "KENITRA & Selekta STEPI" eta "Skapital City" taldeen emanaldia eta 26an, "Uluka", "Auskan" eta "Honat" izango ditugu taulagainean.

Zelako jaiak antolatzea duzue helburu?

Jai euskaldun eta parekideen barruan, eguneko egitaraua indartzea gustatu litzaiguke. Baina jai batzordean ez gabiltza gure momenturik onenean eta aurtengo egitaraua xumeagoa izango da, halaberharrez.

Zer falta duzue ba?

Galtzagorriren asanbladak haize freskoa behar du, jaiak antolatzeko ilusioz dauden gazte berrien parte-hartzea botatzen dugu faltan. Herritik herriarendako diren jaiak aldarrikatu izan ditugu beti, baina horretarako beharrezkoa da denon inplikazioa. Talde zabal eta anitzagoa izatea gustatuko litzaiguke. Gure ahalmenean sinetsi behar dugu, Plaentxia eta plaentxiarrak asebeteko dituen egitaraua antolatzeko gai senti gaitezten.


Zorion agurrak



Alexandra de Santana
Uztailaren 7an 9 urte!
Zorionak polittori, eta muxu haundi bat, etxeko danon partez! Asko maitte zaittugu!



Aimar Igartua
Uztailan 5ian 3 urte!!!
Zorionak eta muxu potolo haundi bat, aitaxo, amatxo eta familia guztian partez




Unax Igartua
Uztailan 5ian 3 urte!
Muxu pila aitaxo, amatxo eta familixian partetik!



Ion Koldo Gallastegi
Uztailaren 17an
Zorionak salao!
Mundu guztiaren partez.



Julen Gabilondo Prol
Abuztuan 12xan 11 urte!
Zorionak morroxko, familixaren partetik! Segi jator, maitte zaittugu.



Ibai ta Hodei
Uztailaren 23an eta abuztuaren 1ean. "Tatugallas", zorionak wapos! Familia osoaren partez.



Polittori!
Pastelak baino goxuaqua zaralako, jaso eskerrik beroenak, eta muxu eta besarkada pila, Pileko lagunen partetik!



Latif Ur Rahim
7 urte uztailaren 15ean
Irribarreen poztasuna eta maitasuna izan ditzazuela eguneru. Etxekoak.



Alana Berraondo Sebal
Uztailaren 23an 25 urte
25 mila kilo zorion, maite zaitugunon partez.
Hil arte bizi!



Jon Caballero Mendizabal
Uztailan 15ian, 11 urte!
Zorionak mutil-haundi eta muxu haundi bat etxeko danon partez, bereziki Nagoren partetik.

Jaiotakoak



Paule Oñederra Ostolaza
Eki De la Torre Rodriguez
Unai Sanchez Gonzalez



ESTETIKA
SOLARIUM
Errabal kalea 1, behea
Tel.: 943 75 14 89

NOBEDADEA
Semi permanent manikura
2-3 astean irauten duena
Brillo gehiago, kolore gehiago...
20€





ARMENDIA
JATETXEA
Ezozí Auzoa 11
20590 Soraluze
T. 943 75 10 02
SUKALDARITZA
TRADIZIONALA



EDURTZA
kafetegia
Santa Ana, 12
TEL 943 75 13 83



Iturria: Eli Lakuesta.

Arranoa inauguratu zutenekoa

1985eko martxoaren 18an inauguratu zuten Arrano elkarte, 80 bazkiderekin. Mauri Murok kontatu digunez, "SIEren (Soraluzeko Independenteen Elkarte) bueltako jendearekin osatu genuen elkarte, mugimendu politikoaren inguruko bilerak egiteko eta ekimen kulturalak bideratu ahal izateko lekua behar zelako. Inaugurazio egunean Sebastian Lizaso eta Iñaki Murua bertsolariek kantatu zuten eta txaranga bat ere ibili zen kalez kale. Egun hartan sentsibiltate politiko askotako jendea hurreratu zen Arrano elkarte barrutik ezagutzera. Elkarte zabaltzeak sekulako ilusioa piztu zuen Ezker abertzalearen inguruko jendearen artean".



PELAYO ALVAREZ LEONARDO
UZTAILAREN 10EAN HIL ZEN PUERTO REALEN,
61 URTE ZITUELA

"Gogoan izango zaitugu beti."

Plaentxiako betiko koadrila


 Kiru Muntalak 943 76 99 85	Pol. Amilaga 5 BERGARA kirumuntalak@yahoo.es www.kmdesign.es Tel. 943 76 99 85	■ Diseinu eta Fabrikazio lanak
		Sukaldeak Horma-amairuak Logelak Zoruak Ateak...
		■ Arotzeria lanak oro har ■ Instalazioak

AURREZTU ENERGIA

GALDARAK
Biomasa, egurra...



EGUZKI PLAKAK eta
AEROTERMIA SISTEMA
Berotu ura eguzki izpiekin
edo airearekin



ITURGINTZA
Zaindu ur kontsumoa

Begiratu eskaparatea Santa Anan

fontaneria
San Andres
iturgintza *Konfidantzaren bermea*

Errabal 2, behea • 943 75 16 46 • 639 179 696 • sanandresiturgintza@gmail.com

Soraluzeko helduen eskola

2015-2016 matrikula zabalik



- Ingelesa, frantsesa, gaztelera eta euskara
- Informatika
- Goi mailako zikloetarako sarbide-froga
- Bigarren hezkuntzako graduatua



Imanol Beretxinaga

Frantseseko ikaslea

Frantsesa erakusten zutela jakin nuenean eman nuen izena, parte hartzeko eta frantsesa praktikatzeko.



Sanjeev Ra Dhakal

1.Graduko ikaslea


Nepalgoa naiz eta urtebete daramat Soraluzen. Bigarren hezkuntzako titulua atera nahi dut eta ostean maila ertaineko graduren bate gin.



Esther Revuelta

Informatikako ikaslea

Bost urte daramatzat. Josten ikasten hasi nintzen eta gero ingelesa eta informatika ikasi ditut.



Unai Soraluze

Unibertsitaterako sarbidea

Unibertsitateko sarbidea atera nuen eta goi mailako ziklo bat egin dut Arrasaten, bioeraikuntzako proiektista ikasteko.